

Mugagabeko amodioa

Daniel Carballo

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1989



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Mugagabeko amodioa

Daniel Carballo

Julene Azpeitia 2. ipuin lehiaketa

1989

Zumaiako onenaren saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Daniel Carballo (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

1. KAPITULUA

Behin batean, lurralde menditsu bateko haran zabal batean Saisha Etipwol izeneko neskatxa eder bat bizi zen.

Hainbestekoa zen neskatxaren edertasuna ezen, bere alaitasunak leku bakarti hura pozez betetzen zuen. Begien argitasuna, eguzkiak urean duen distira baino ederragoa zen. Hitzien sinpletasunak aldiz, edozein entzule liluratzen zuen. Eta haren mugimenduen biribiltasunak portzelanazko pinpilinpauxa batenak ziruditen.

Neskatxaren etxaldea herritik nahiko urrun bazegoen ere, ez zuen bakardade lehorra hain bortizki ezagutzen. Saisharen edertasuna mendien bestaldeko lautadetatik ere ikustera etortzeak, Etipwoltarren etxaldea inguruetako ezagunena bihurtzen zuen. Udan ez zen itzalik Saisharen gorpuztxoa laztanduko ez zuenik; Udazkenean ez zen historik Saisharen malkoak lehortuko ez zituenik; Neguan ez zen surik, Saisharen ingurua berotuko ez zuenik; eta udaberrian berriz, ez zen lorerik Saisharen etxea lurraldeko loratuena bihurtuko ez zuenik.

Etipwoltar neskatxa, alaba bakarra bazen ere, ez zen batere aspertzen bere jolas ordutan. Lagunak non nahi zituen eta guztiak nahi zuten harekin jolas egin, baina honek, lagun bakarra estimatzen zuen: bakardadea. Bere pentsamenduetan barne murgiltzen zen imajinaziozko jolasak asmatuz. Askotan printze hegalaria zuen etsai zero jolasetan, bestetan berriz lur-azpietako munstro maltzurra; eta hauekin eta beste hainbat jokorekin igarotzen zituen gaztetako momentu zoragarri asko eta asko. Hasera batean, gurasoek ez zioten alabaren portaera honi jaramon handirik egiten; baina Saishak hogeitun urte bete zituenean egoera kezagarria bihurtzen hasi zen. Garai hartako guraso gehienek bezala, Etipwoltar gurasoak, alaba ezkonduz ikusi nahi zuten (inguru haietan, gainera, ezkontzen ez ziren gazte horietakoei eta bere familiei ez zitzaaien begi onez ikusten, gaitzaren bat zutenaren sinesmena oso zabaldua baitzegoen).

Etipwoltar gurasoak beraz, kezkatzen hasiak ziren ordurako. Alabak berriz ez zuen inolaz ere interesik jartzen bere adina zuten neskek jartzen zuten gauzetan; jantzi ederrak eta amodioa. Honen ilusioak urtaroekin aldatzen ziren; ametsetik ametsera...

Etipwoltar andrea, asteburutan herrira joaten hasi zen bertako sendagile batengana erantzun bila. Honek erantzunik aurkitzen ez zituen, mendiarteko agure jakintsu batengana abiatu zen. Honek ere ezezkoa eman zion, arraroegia iruditzen baitzizaion Saisharen kasua. Itxaropenak pixkanaka galduz, joan zen Etipwol andrea ibai ondoko belarginarengana, mirari antzeko baten bila. Honek berriz, ez zuen amodioaren landarea oraindik ezagutzen, eta burumakur bidali zuen etxera.

Saisharen etxeak zuen alaitasuna galtzen joan zen egun gutxitan. Gero eta bisitari gutxiago baitzuten. Herrian hala ere askok ez zuten itxaropena guztiz galdu eta prest ziren Etipwoltar familia laguntzeko, Saishak gazteen artean alaitasuna itzul zezan. Ikusten zenez, oso estimatua zen neskatxa inguru haietan.

Ezaguna zen bestalde, lan miragarriak egiten zituen azti zaharra. Hau, mendien ondoren zegoen lautadaren mugetan bizi zen. Herritarrak prest zeuden Saisharen kasua azti ospetsuarengana eramateko. Dirua biltzen hasi ziren herritar ugari; abeltzain elkarteak, bere aldetik, urteroko periaren irabazien laurdena eskaini zuen. Hauekin eta beste laguntza txiki batzuekin, bidaia prestatzen hasi ziren.

Saishak bere bakardadean, ez zion bidaiari zentzua aurkitzen, bere nahia ez baitzen ezkontzea, ametsetik ametsera ibiltzea baizik.

2. KAPITULUA

Bidaia prest zutela, ordainerako dirua jaso zuten alkatearen eskuetatik Etipwoltarrak. Hurrengo goizean goiz abiatuko ziren Etipwol andrea eta bere iloba zaharrena, hiru egun eta hiru gauetako bidai neketsua egitera.

Lehen bi egunak, gogorrenak izan ziren mendiak igarotzea zaldi eta gurdi batez ez baitzen batere erraza. Lautadara heldu zirenean, helburu bera zuten beste bi gurdiekin topo egin eta elkarrekin amaitu zuten bidai neketsu hura.

Aztia bizi zen etxea, bere izen berbera zuen herrixka baten erdian aurkitzen zen. Herrixka kaxkar haren inguruan berriz, hainbat eta hainbat gurdi aurkitzen ziren; guztiak helburu berdin batekin.

Heldu ziren egunaren arratsaldean, gizontxo txiki eta lodi bat azaldu zen kanpamendu haren erdian. Aulki txiki baten gainean jarri ondoren, ahots mehe batez esan zuen:

—Jaun eta andere agurgarriak! Bietror Azti ospetsuaren izen ezagunaren ordean, argitzen dut ondorengo hau...!

Azti argi eta ohorez beteriko honi, hain ospetsu egiten dioten kasu eta arazoak aurkeztu nahi dituenari, zera; kasu bakoitza paper zuri batean idatz dezala ahalik eta argien, hauen askapenerako beharrezkoak diren pausoak aurrera eramateko. Paper hauek bihar goizean goiz jasoko dira Bietror Azti ospetsuaren etxe azpian!

Eztarria asko larrituz amaitu zuen gizon pottoko hark bere lana. Geroago jakin zuen Etipwol andreak guzti honen zergatia. Jakin zuenez, azti ospetsuak ez zituen arazo guztiak argitzen, zailtasun gehiena suposatzen ziotenak bakarrik;

horrela hain goian zuen ospea gehiago goratzen zuen. Albiste honek ez zion batere postu andre atsekabetu honi.

Hurrengo goizean goiz, jende multzo handi baten artan zegoen etxetzar batetara abiatu zen Saisharen ama. Eskuartean zuen paperean ez zuen arazoa bakarrik aurkeztu, honen ondorioz familia igarotzen ari zen atsekabeak era azaldu zizkion hizki mordo baten barnean. Gutxira, eta guztien haserrerako, aurreko egunean azaldu zitzairen gizontxo pottokotxoa azaldu zen etxe handi haren atean. Bere hitzen zain zeuden guztiei isiltasuna eskatu ondoren, esan zuen ahots ahultxo harekin:

—Jaun eta andere agurgarriak! Bietror Azti ospetsuak, lasai egon zaitezten eskatzen du! Zeuon arazo guztiak aztertu ondoren esango baitu nortzuk izan diren, itxaropena bere esku zabal eta ohoretsuetan jarri dituztenak. Hau, gaurtik bi egunetara gertatuko denaren jakinean, agurtzen zaituzte!

Guztiak aurpegi txarrez utzi zuten aztiaren etxaurrea. Bi egun haiek are hotzago eta luzeagoak egin ziren pertsona atsekabetu guzti haientzat, beren alaitasun itxaropen guztiak pikutara joan baitzitezkeen egun bi haien ostean. Etipwoltar andreak, negarrari eutsi zion bi gau ilun eta hotz haietan zehar. Ez zuen indarririk, bere etorkizuna argitzeko, ilusioak aurreko egunetan galduak baitziren.

Inork ez zuen lorik egin gau hartan. Goizean goiz bildu zen atsekabe multzo hura azti ospetsuaren etxetzarraren aurrean. Guztiak zituzten begiak ate handi hartan. Azkenean zabaldu zen, gizontxo lodi haren eskutxo lodietatik. Zortzi izen esan zituen, baina Etipwol andreak bera bakarrik entzun zuen. Alaitasuna malko batez besterik ez zuen adierazi. Negar eta haserre artean urrundu ziren aukeratuak izan ez ziren guztiak.

Gutxira entzun zuen herrixka hark, bigarren aldiz Etipwol izena. Aztiarekin elkartzeko momentua heldu zitzaion Saisharen amari. Pottokoak zuzenduta abiatu zen andrea etxe barnera. Iluna zen bentan etxe eder hura. Argitasun bakarra, azti haren aurrean aurkitzen zen...

3. KAPITULUA

Elkarrizketa oso laburra izan zen. Aztiak bakarrik hitz egin zuen. Oso labur zera esan zion:

—Zure alabaren etorkizuna urte barru argituko da. Alaba maitemindu egingo da. Orduan itzul zaitez ordaina egitera.

Eta bizar zuri handi hura laztanduz agurtu zuen, gizon zahar eta handi hark, eserleku zabal hartatik, Etipwol andrea.

Ez zen hura, inolaz ere espero zuen erantzuna; egia esanda zertxobait goibeldu zuen itxaropen berriz beteriko bihotz txiki hura. Itzulerako bidaia lasaiagoa izan zen. Kezkak oraindik ere gurdian bazeramatzatzen ere, oraingoan zama gutxiagoa zen.

Lau egun eta hiru gau barru heldu zen gurdia etxera. Berria berehala zabaldu zen inguruetatik. "Saisha urte barru sendatuko zela" zen guztien ahoz entzuten zen albistea.

Aztiaren botereak bitartean lanean hasiak ziren ordurako. Jainko eta izpirituen munduaren mugetaraino heltzea ziren hitz indartsuekin, magia eta maitasuna banatzen zuen izpiritu bat jaitsi zuen, bere helburuan lagun ziezaion. Cupido jaitsi arazi zuen...

Cupidoren lana ez zen batere erraza; oraingoan, ohizko zuen bezala, ez zituen bi maitaleen bihotzak elkartu eta bakar bat bihurtu behar, oraingoan, bihotz maitemindurik ez zegoenez, lan bikoitza bete beharko luke; eta hau ez zen lan arrunta izango.

Izpiritu alai hau, udaberriko lehen haize goxo eta maitagarriekin heldu zen Saisharen etxaldera; gaiko loreak, Cupidoren etorrera ezagutuko balute bezala jantzirik ederrenekin apaindu ziren. Zuhaitzen fruitu azkarrenak, kolore ederrez aurkitzen ziren; eta lurraldeko abere eta animalien haurtxoak inoiz baino osasuntsuagoak jaio ziren. Haran zabal hartan Cupidoren etorrerak, alaitasuna eta poza ekarri zuen, udaberri eder hura bakez beteaz.

Saisharen etxean, goibel aurkitzen ez baziren ere, aurreko urtean ezagutu izan zuten poza ez zuten barne barnetik sentitzen.

Udaberria izaten zen, ezkontza gehienak jasotzen zituen urtaroa eta honek tristuraz apaintzen zituen Saisharen inguruko aurpegi guztiak. Honen portaera berriz ez zen batere aldatu; betiko poza eta alaitasuna gordetzen zuen edertasun haren atzean. Imajinazioaren bitartez bizitza aspergarri hura, hobeago jasaten baitzuen. Cupidoren etorrerak, bihotz asko eta askorengan, amodio haizeak ekarri bazituen, Saisharen bihotz txiki hartan haize goxo bat besterik ez zen sentitzen.

4. KAPITULUA

Txoriñoen kantuekin batera jaiki zen Saisha, udaberri alai haren goiz urdin batean. Goizero bezala ur bila joan zen mendi magaleko iturrira. Bidean pentsamenduetan murgiltzen zen, imajinazio mundu harrigarri haren zelaietan jolas eginez.

"Zer gertatzen zaio Saishari goiz eder honetan? Bere bihotzak inoiz sentitu ez duen berotasuna sentitzen du, aire fresko hau arnasten duen bakoitzean. Lur azpiko munstroaren gaiztakeriaren bat ote? Ala gaixotasun magiko baten lehen urratsak dira? Ez du ulertzen bere gorputzak sentitzen dituen sentsazio berri hauen zergatia.

Zaldi hegalariaren zeru bidai batez, jolasean joan da ur doratu eta magikoaren bila. Aingerutxoek eginiko iturri urdinetik erortzen den hura."

Horrela, goizero bezala, ametsetan igarotzen du egin behar dituen lan guztiak...

Kupidok ez zuen galdu Saisharen pista, eta bere buru azkar hartatik ideia argi bat sortu zitzaion. Momentu haiek ziren Saisha ezagutzeko unerik egokienak; ametsak...

Hurrengo goizean, Saishak ur ontzia betea zuenean, zuhaitz zahar baten itzalean etzan zenean...

"Mendi gainetatik, ile horidun pertsona bat doa hegaz askatasunaren haizeak bilduz adats eder haien artean. Jolas eginez urrunera gaztelu eder bat ikusten du begi aurrean. Ezinezkoa da! Saishak ez du gaztelu eder hori amestu ere egin! Misterio handiz hurbiltzen da, agian izpiritu ezkutu batzuen lana izan daitekeen leku hartara. Gazteluaren ate handi baten aurrean zaldun ugari aurkitzen dira, tronpeta handiez horniturik. Saisha heltzean, guztiak tronpetak altxa eta indarrez eragiten diete ahoz. Musika eder hura magiako mundu haren leku guztietatik entzun da."

"Zeharo harriturik eta zertxobait beldurturik, sartzen da Saisha Etipwol, bere bizia aldatuko duen leku hartara. Lehen gela, hutsik aurkitzen bada ere, leiho eta eskailera ederrekin horniturik, espazio handiko gela izatetik printze eta printzesen dantza eta festa egiteko leku bihurtzen da Saisharen begietan. Beti amestu izan duen leku hura egi bihurtzen ari da, bere imajinazio barnean. Erdiko eskailerak igotzen dituen bitartean, gaztelu haren barnealdearen edertasunaz konturatzen da pausu bakoitza ematean. Haren argi eta espazioak, Saisharen irudia txiki eta izugarri bihurtzen du momentutan. Eskaileren amaieran, beste gela baten sarrera aurkitzen da. Atea ireki eta lorez beteriko zelai bat aurkitzen da Saisharen harridurarako. Bertan pozez beterik, salto eta biraka, barre algara batez igarotzen du, zelai hura.

Begiak itxi gabe, abiatzen da zelai haren amaieran dagoen kobazulora; albo batetara duen argi distiratsu bat hartu eta sartzen da iluntasun hartara. Argiak ez du hasera batean indar handirik egiten, baina bat-batean, kristalez beterik dagoen leku handi batetara heltzean, argiaren indarra bikoiztu egiten da hainbat aldiz momentu berean. Saisha itsutu egiten da hasiera batean, argia izugarri bihurtzen baita bere begientzat. Begiak egokitzean, leku haren liluraz konturatzen da; ia gazteluaren adinako altuera duen amildegi batean zehar jausten diren kristaleko malkoek sortzen dute hainbesteko argitasuna. Amildegi honen bestaldean berriz guztiz kristal eta harri zoragarriz eginiko dorre bat aurkitzen da. Dorre honen maisutasunak guztiz liluratzen du Saisharen imajinazioa; ez zuen inolaz ere horrelakorik inoiz imajinatu. Dorreak makina leiho eta ate distiratsu ditu, horietako askok eta askok, kobazulo erraldoi haren argitasuna sortzen duelarik.

Dorrera jaisteko, eskailera luze batzuk aurkitzen ditu ezkerretara. Hanka bat bestearen aurretik jarriaz, printzesa bat bailitzan, poliki-poliki abiatzen da, dorrerantz."

"Dorrera heldu denean, kristalezko ate txiki bat ireki egin zaio. Besterik gabe sartzen da, etxe zoragari hartara. Bat-batean, goitik datorkion izpi zuri batek hegaz jaikitzen dio lurretik. Oso-osoa azkar, dorrearen zati gorenera helduz gero jaulkitzen du, ama batek semetxoa sehaskan ezartzen duen bezala. Gela arrosa batean aurkitzen da. Lurra lumaz estalirik dago, paretak berriz, urdin koloreko azal goxo batez. Gela guztian zehar, eserleku eta almoada eder batzuk aurkitzen dira zabaldurik. Airean usaintzen den lurrinak, udaberri usaina dakar Saisharen sudurtxora.

Guzti honek asko nekatu du neskatxa, eta lurrean etzan eta gutxira, loak harturik igarotzen ditu momentu zoragarri haiek..."

Hotzak esnatu zen Saisha, zuhaitz zaharraren azpian; berandu egin zen, eta gose zen. Ez zen gogoratu ere egiten nola lokartu zen, buruan zuen gauza bakarra, nahastea zen. Bihotzean, berotasun gozo bat sentitzen bazuen ere, ez zen arduratu gehiegi. Etxeratzean, pertsona ugari aurkitu zituen atean bildurik. Etxera sartu eta denak, besarkatu eta musukatu egiten zuten Saisha. Arratsaldea zen eta inork ez zekien nondik ibili zen Saisha.

—Nondik zatoz hain berandu! Oso urduri geunden zutaz!

—Beldurtu egin gara. Hau da sustoa neska!

—Aita eta inguruko lagun batzuk dituzu oraindik zure bila. Eta horrelako hainbat entzun zituen bat-batean.

—Baina, baina, ni iturri-ondoko zuhaitz zaharrea nengoen loak harturik! — esan zuen zeharo urduri Saishak.

—Bai zera, ez ezazu gurekin gezurretara jolas, zure aita horra joan baita zure bila eguerdi aldera, eta urontzia besterik ez du aurkitu.

Neska zeharo kezkatu zen hau entzun zuenenean. Ez zuen sinetsi nahi, baina zerbait arraroa gertatzen ari zitzaien...

5. KAPITULUA

Kupidoren ideia indarra hartzen ari zen. Saisharen interesa piztu zuen; garbi zegoen Saisharekin harreman zuzenetan jarri nahi bazuen, bere mundu fantastikoan egin beharko zuela. Eta horretarako prest zegoen Cupido.

Bestalde, herrian marmarrak handitzen joan ziren. Ez zuten Saisharen sendakuntzan itxaropen handirik. Udaberriko goiz hartatik, Etipwol familiarekiko kontakizunak indarra hartzen hasi ziren; Saisha sorgin antzeko zerbait bihurtzen ari zela sinesten baitzuten askok eta askok. Saishak makina aldiz entzun zituen amaren negarrak eta aitaren pausu urduriak etxean zehar. Berak hala ere inork baino gutxiago ulertzen zuen egoera hura.

Saisharen ametsak, gero eta arraragoak egiten zitzaizkion. Behin baino gehiagotan, egoera jasan ezin hura zela eta amesgaiztoak izaten zituen. Ez zuen orain, pentsamenduen mundu hura lehen bezain ongi ezagutzen, eta askotan, beldurra pasatzen zuen. Etipwol andrea konturatu egin zen Saisharen portaera aldaketaz eta begi arraroz begiratzen hasi zen alaba.

Kupidoren nahia ez zen berak nahi izango lukeen ongi irten. Saisharen ametsekiko indarra handiegia zen hain erraz uzteko. Gauzak ongi irten balute, Saishak ametsei uko egingo zien benetako errealitateari garrantzi gehiago eskainiz; horrela erraztu egingo luke bere lana. Baina gauzak gehiago ez oker zitezen, Cupidok parte hartzea erabaki zuen.

"Saisha zaldi hegalararen gainean doa, mendi gaineko haize hotzak, adatsak orrazten dizkiolarik. Urrunera, iluntasun handi bat hurbiltzen ari da,

mendiartean dagoen haran baterantz. Haran horretan bere etxea aurkitzen dela konturatzen denean harantz abiatzen saiatzen da."

"Baina zaldiari eragin dionean, honek jauzi azkar batez bota egiten du laino tartera. Saisharen oihua ez du inork entzuten. Erori eta erori egiten da, amaierarik gabeko jauzi batean. Berehala udaberriko goiz hartan sentitu zuen sentsazioaz, garrasiak eta oihuak isiltzen ditu. Laino urdin baten gainean erori da, goxotasunaren zaporea dastatuz. Begi aurrean, mutil eder, ilehori bat du, barre lirain bat ezpain gozoez aurkezten duelarik. Saisha esna sentitzen da bat-batean, amesgaiztotik oso urrun. Bihotz berotasun batek taupadak indartzen dizkio. Gazte haren hurbiltasunak, bakea eta segurtasuna eskainiz gain, lotsa eta poza sorrarazten baitio.

—Nor zara zu? —esan du Saishak ia indarrrik gabe...

—Kupido nauzu, zeure beharretarako.

—Non nago, eta zertan ari naiz leku arraro honetan?

—Ez zaitetz arduratu, neure ametsetan baitzaude.

—Zertara ekarri nauzu hona? —Saishak lasaitasuna eskuratu du bat-batean.

—Beldurretik urrundu nahi zintudan, besterik gabe; joan nahi baduzu, joan zaitetzke.

—Ez, ez, lasai. Egoera berri honek zertxobait nahasi egin nau eta... —erosoago jarriz —Ez zaitut inoiz ikusi, nongoa zara?

—Imajinazioaren mundukoa.

—Eta non dago hori?

—Zeru mugetan.

—Zertara etorri zara bada?

—Zuri laguntza eskaintzera.

—Beraz, zurea da udaberriko egun hartan ikusi nuen gaztelu eder hura!

Kupido guztiz gorritzen da. Nola asmatu ote du izaki arrunt batek inork gogoratzen ez dituen ametsen zentzua?

Saishak liluraz bete zuen Kupido, hura zen, norbaitengan zerbait sentitu zuen lehendabiziko aldia.

"Denbora pasa eta pasa egiten den bitartean, inork hitz ere egin gabe, egon dira joan etorrian, guztiz goxotasuna den laino hartatik. Cupidok egin behar zuen lana pikutara joan dela konturatzea ez da zaila; bere sentimenduek parte hartu baitute kasu honetan. Txarrerako ala onerako, bien bizitzak zentzu berri bat hartu du, urtarorik gabeko egun zoragarri honetan."

Saisharen loa zeharo loditu zen udazkeneko egun haietan. Ez zuen inoiz hainbeste logurarik izan; gari haietan ere egun osoa ametsetan pasatzen bazuen ere, hauen zentzua zeharo aldatu zen, haize epel batez garraiatua izanago balitz bezala. Oraingoan, Saishak maitasun berezi bat jaso zuen, bihotz jolasti hartan. Amak bere aldetik, ez zuen batere ulertzen alabaren bat-bateko jarrera aldaketa; udaran zituen ateraldi garratz haien txintik ere ez zen, Saisharen portaera berri hartan.

Negua heldu zen eta Saisha etxeko epeltasunean, jantziak josteari ekiten zion, inoiz atsegin ez zitzaion lan hura, eguneroko zeregin bihurtu zen, gurasoen harridurarako. Etipwol andrearen bihotzean, malko txiki baten distira azaldu zen; itxaropenaren azken alea, berriro indartu baitzen.

"Kupido eta Saisharen elkar aldiak, asko gehitu dira egun hartatik. Bien bizitzak, lasaitasuna aurkitzen dute elkar ikustean. Hitz arruntak, hitz goxo bihurtzen zaizkie batak besteari ahoz eskaintzen dizkionean. Lehen aldiz bien bizitzan, maitasunaren hazia loratzen hasi da, udaberriaren etorrerari dei eginez..."

6. KAPITULUA

Udaberria heldu zen. Atzean utzi zituen negu ilunaren tristura eta hotzak. Saisharen alaitasunak berriro aurkitu zuen, gordeta zegoen edertasuna. Herrian, honen ezaguerarik ba zen, eta miraria bete ote zenaren jakin nahiak bultzaturik joaten zen, berriro, hainbat eta hainbat gazte, Etipwoltarren etxaldera. Amaren itxaropentxoak ispilu egiten zuen herri guztian. Azti ospetsuaren esana betetzear zegoen, gutxira; Saishak azken pausua ematen bazuen.

Amak, egun batean, bazkalostean zera galdetu zion alabari:

—Saisha, zer duzu oraingoan burutik zehar, agian amets zoragarriren bat, ala amodio ezkuturen bat?

—Ametsak, ugariak eta ederrak direla ez dizut ezeztatuko, baina hauen esanahiak amodio bat ezkututzen duela, esan behar da baita ere.

Amaren poza negar batean busti zen, alabaren gorputza besarkatzean. Ez zituen hitzik, amak momentu horietan egiten dituen galderak egiteko; lepoa korapilo estu batez lotua baitzuen.

—Kupido, amari esan diot, ametsen zergatia. —esan du Saishak poz adierazpen batean.

—Agian onena izango da, agian txarrena. Inork ezagutzen al ditu amodioaren ezkutuak?

—Baina ez duzu kezkatu beharrik, amak ulertuko du; bere nahia bete egin baita.

—Baina amodioa ez da beti, guztiok nahi izango genukeen bezain ulerkorra.

Kupidok, maitasunaren itzalak ongi ezagutzen zituen; baina ez zen ausartzen Saishari egi guztia azaltzen, honengan zuen amodio eta errespetuagatik.

Inor konturatu baino lehenago abiatu zen Etipwol andrea azti zaharrarengana ordaina egitera. Herrian, ez zuten jakin oraindik Saisharen berri ona; ama ez baitzen ausartu azaltzera, egi guztia jakin gabe.

Hiru egun eta bi gau barru heldu ziren oraingoan, azti zaharraren etxera. Besterik gabe, zuzenean, eskuan diru poltsatxoa zuelarik sartu zen, zerbitzari pottokoaren atzetik, Bietror azti ospetsuaren gela nagusira.

Hau zain zaukan.

—Sar zaitez, andrea, zure zain naukazu.

—Ordaina egitera etorri naiz, jaun goren hori. —eta poltsatxo bere aurrean ezarri zuen.

—Ez da, zuk uste izan duzun ordaina, nik eskatu behar dizudana, andrea.

—Ez al da nahikoa ekarri dizudan diru kopurua agian?

—Eskatu behar dizudan ordainak, zure alabari zor diozun amodioaren ordaina da. Bere nahia kasurik ere egin gabe ezkontzara bultzatu nahi izan duzu...

—Baina, zerorrek esan bezala maitemindu egin da azkenean. Ongi portatu ez banaiz ere, bere nahia izan da, nik ez dut oraingoan ezertara behartu. —azaldu zuen andreak burumakur, aztiari esaldia bukatzen utzi gabe.

—Beraz, ordain gisa, zure alabaren nahia beteko duzu. Ez duzu ezkontzera behartuko, eta bere amodioa errespetatuko duzu betirako.

—Baina, ez al da benetan maitemindu ala? Zein amodio mota da hori?

—Mugagabeko amodioa andrea.

Etipwol andreak, ez zuen guztiz ulertu aztiak esan ziona, baina funtsean, ordainaren balorearen zentzua hartu zuen. Negar batez utzi zuen azti zaharraren etxea. Egun hartatik bere bihotza guztiz lehortu egin zen; ez zituen itxaropen malko gehiago bere nahiak betetzeko.

Saishak eta Cupidok, inork ezagutu ote dezakeen amodio magiko eta mugagabea lortu zuten, ametsen munduan.

Lurralde hartan, azkenik, Saisha Etipwol izaneko andrea bihotz handiko andere eder eta bakarti bat bezala ezagutu eta gogoratu zitzaion. Azken finean, haren etxea lurraldeko loratuena, alaiena eta epelena baitzen guztientzat...